



ALBOAN

www.alboan.org



# Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta



GARAPENERAKO  
LANKIDETZAREN  
EUSKAL AGENTZIA  
AGENCIA VASCA DE  
COOPERACIÓN PARA  
EL DESARROLLO




EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## **ALBOAN Lankidetzak koadernoak**

1. Lankidetzak deszentralizatua eztabaidan
2. Eraginkortasunari esanahi berria ematen. Gure proposamena
3. Mundua aldaketa sakonean. Lankidetzaren esparruko erakundeen testuinguruari eta erronkei buruzko hausnarketa
4. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: euskal lankidetzak deszentralizatua instituzionalizazioaren eta krisiaren artean
5. Iragana aitortu etorkizunera begiratzeko: hezkuntza mobilizazioarekiko sentsibilizazioa garatzeko
6. Zenbait gakoren bila, lankidetzak deszentralizatua eta jarduera humanitarioa hobetze aldera
7. Espezializatu al daiteke lankidetzak deszentralizatua deszentralizaziorako laguntzan?
8. Tokiko eta eskualdeko garapen ekonomiko alternatiboko prozesuak. Lankidetzak deszentralizatuaren apustua
9. Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta
10. Bide-laguntza, eraginkortasunerako gako

# Generoaren eraginkortasuna; edo generoa, eraginkortasunaren ikuspegia oinarri hartuta



Argitaratzailea:

**ALBOAN**

Aita Lojendio 2, 2. • 48008 Bilbo

Tel.: 944 151 135 • Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2 • 31011 Iruñea

Tel.: 948 231 302 • Faxa: 948 264 308

Andia, 3 • 20004 Donostia

Tel.: 943 275 173 • Faxa: 943 320 267

Estenaga Monsinorea, 1 • 01002 Gasteiz

Tel.: 945 202 676 • Faxa: 945 202 676

[alboan@alboan.org](mailto:alboan@alboan.org)

[www.alboan.org](http://www.alboan.org)

Egilea: Marlén Eizaguirre Marañón

Itzulpena: Bakun

2013. urtea

Azala: Muxotepotolobat

Diseinu eta maketazioa: Marra, S.L.

Imprimaketa: Lankopi, S.A.

Lege-gordailua: Bi-1275-2014

---

Lan honen erreprodukzio partziala baimentzen da, beti ere helburu komertzialik ez badu eta iturburu apaitzen baldin bada.

# Aurkibidea

<b>1. Aurkezpena: zertaz ari gara generoaz eta lankidetzaz dihardugunean?</b>	<b>5</b>
<b>2. Garapenerako lankidetzaz eta generoaren aldeko apustua: txanpon beraren aurkia eta ifrentzua?</b>	<b>11</b>
<b>3. Generoaren eraginkortasunari buruzko agenda</b>	<b>17</b>
<b>4. Genero-ikuspegiaz jabetu beharra, euskal lankidetzaz deszentralizatuan</b>	<b>27</b>
4.1. Generoaren ikuspegi instituzionalari buruzko euskal lankidetzaren diskurtsoa	28
4.2. Genero-ikuspegia aintzat hartzearen aldeko euskal lankidetzaren praktika	29
<b>5. Egindakoari buruzko balorazioak eta gaur egungo eztabaidak</b>	<b>35</b>
<b>6. Bibliografia</b>	<b>39</b>



## 1. Aurkezpena: zertaz ari gara generoaz eta lankidetzaz dihardugunean?

*Genero* terminoak bide luzea egin du. 1838an, Sarah Grimké genero-dualismoaren aurkako lehen errefutazioa egin zuen. Haren ondotik beste emakume ugari aritu dira berdintasunezko antropologia bat hezurmamitzen, hala nola, besteak beste, Catherine LaCugna eta Janet Soskice; haien arabera, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunek ez gaituzte gizakiok gizartean edo etxean rol jakinak betetzera eramaten, gizartean denok berdinak izatearekin bateragarriak baitira. Izan ere, gizarte-identitatea, kontzeptu hori ondo ulertuz gero jabetzen garenez, sexuaz bestelako ezaugarrien bitartez ere eratzen da, eta, alde horretatik, horretan elementu ezinbestekoak dira arraza, klasea, familia-dinamika, ondare etnikoa, gizarte bateko kide izatea, eta inguru politiko, sozial eta kulturala. Kontua da komunitate zientifikoak 1955ean berreskuratu zuela *genero* terminoa, eta gizarte-zientzietara 60ko hamarkadan iritsi zela; ondoren, lankidetzan zebiltzanek hartu zuten, eta, hartaz baliaturik, zenbait pentsamendu-korrante sortu zituzten (emakumeak garapenean, generoa garapenean, transbertsalizazioa...), zenbait ikuspegitan oinarrituta.

Garapenerako lankidetzan, *genero* terminoa zenbait fasetatik igaro izan da, baina, pixkanaka-pixkanaka, diskurtso eta proposamenetan sartuz joan da. *Laguntza humanitarioari eta garapenerako lankidetzari buruzko hiztegian* honela definitzen da *genero* hitza: “sexu-desberdintasunak kultura-eraikuntzaren ondorio direla azpimarratzen duen kategoria; hots, emakumeen eta gizonen jokabide, jarduera eta funtzioak kulturalki eraikiak direla, eta ez biologikoki mugatuak”<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo* izeneko hiztegia online kontsultatu daiteke, hemen: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrat/108>.

Urteen joanean, terminoa are zehatz-zorrotzago definitu da, batez ere 1995ean Beijingen egin zuten Emakumeei buruzko Nazioarteko IV. Konferentzia egin zuteenez gerotik; hartan ziotenez, “gizarte orok gizon eta emakumeei dagozkien funtzio, jokabide, balio eta erlazioak mugatzeko duen modua”, horixe da generoa; sexua, berriz, “sexu-desberdintasunetatik datozen alderdi biologikoekin lotuta dago. Horrenbestez, pertsona baten sexua naturak zertzen badu ere, generoa gizarteak eraikia da, eta ondorio politikoak ditu”<sup>2</sup>.

Horiek horrela, terminoari buruzko zenbanahi definizio aipatuta ere, gaur egungo zenbait egilek diotenez, “terminoa oso lausoa da, dimentsio asko dituena, holistikoa, polisemikoa eta konplexua: ahalmen analitiko handikoa denez, gauzak zalantzan jar ditzake, eta deserosoa eta polemikoa da; edukia, berriz, oso erraz manipulatzeko modukoa”<sup>3</sup>. Azken urteetan, baina, *genero* terminoa ez ezik, *sexu* terminoa ere zalantzan jartzen hasiak dira zenbait egile, sexua bera ere, naturak mugatua ez, baizik eta kultur eraikuntza bat delakoan.

Nolanahi ere, *genero* terminoak sekulako garrantzia izan du, zenbait galdera egi-tera behartu gaituelako: “Zer esan nahi du emakume izateak? Eta zer, gizonezko izateak?”. Gizateriaren hasieratik, gizonezko edo emakumezko den aldetik, desberdintasunari zentzua eman nahi izan dio gizakiak<sup>4</sup>. Gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak, generoari buruzko teorien arabera, “genero-rolak” definitzen dituzte. Genero-rolak “gizarte-biografiak eta gizakiaren sexuazio-prozesuan norberari egokitutako sexuaren aurrean gurasoek eta inguruak hartzen dituzten jokabide dimorfoak duten garrantzia nabarmentzeko balio dute”<sup>5</sup>.

Genero-rol horiek nabarmen eragiten diete emakumeek, kultura orotan, gizartean duten egoera eta posizioari, eta horrek, desberdintasun-egoerak ez ezik, desparrekotasun-egoerak ere eragiten ditu familia bereko kideen artean, eta, beraz, gizartean bertan ere bai.

Nazioartean, emakumeen eta talde feministen presioen ondorioz, Nazio Batuen Erakundeak hainbat ekimen bultzatu ditu, hala nola Nazioarteko Konferentziak eta Emakumearen Hamarraldiak, eta emakume askoren egoera hobetzeko eta/

---

<sup>2</sup> Nazio Batuen Erakundeak: “Declaración y Plataforma de Acción Beijing”. <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%2oS.pdf> (2013/12/13)

<sup>3</sup> García-Mina Freire, A. (2010): “La categoría “género”: historia de una necesidad”, *Sal Terrae*, 98 (2010), 307-321, 308. or.

<sup>4</sup> *Ibidem*. 309. or.

<sup>5</sup> *Ibidem*. 311. or.



edo emakumeek bizi dituzten bazterketa-egoerei aurre egiteko Konbentzio eta Ebazpen ugari onartu. Dena dela, gaur egun inon ez dago berdintasunik, horixe da egia. Era berean, baina, jakin ere badakigu aldaketa errealak posible direla, borondate eta konpromiso politikoa badaude.

Horrenbestez, garapen normatibo handiko testuingurua da gurea, konpromiso-z betetako garaia, baina konpromiso horiek guztiak errealitate egiteko batere gaitasunik gabekoa. Alde horretatik, XXI. menderako balioko zuen garapenaren agenda bat definitzeari dagokionez, XX. mendearen azken hamarkada gakoa izan zen. Hamarkada horretan, izan ere, emakumeen eskubideen aldeko konpromiso adierazgarriak hartu ziren, bai Vienako Giza Eskubideei buruzko Goi-bileran (1993), bai Kairoko Populazioari eta Garapenari buruzko Munduko Konferentzian (1994), bai Kopenhageko Gizarte Garapenari buruzko Goi-bileran (1995), bai eta Beijingeko Emakumeari buruzko Munduko laugarren Konferentzian (1995) ere. Emakumeen aldeko sare eta mugimenduek gogor ekin zioten borrokari sasoi horretan, eta, hala, Jardunbide Plataforma ugari sortu ziren, emakumeen egoera aldatzea eta hobetzea helburu hartuta.

Nolanahi ere, Nazio Batuek 2000. urtean sinatutako Milurtekoko Deklarazioan nabarmen egin zen atzera, bai eta Deklarazioko proposamenak zehaztu zituen Milurtekoko Garapen Helburuetan ere (MGH aurrerantzean), eta, hala, jardunbide eta plataforma ugari bertan behera gelditu ziren. Emakumeen alde hartutako konpromisoetatik, bi baizik ez zituen aintzat hartu MGHk: hirugarren helburua, lehen eta bigarren hezkuntzan, 2005erako, eta hezkuntza-sistemako maila guztietan, 2015. urtea amaitzen denerako, genero-desberdintasunekin amaitzea ardatz duena; eta bosgarren helburua, amen osasuna hobetzean ardatzen dena.

Konpromisoen beherakadari, gainera, eraginkortasunari buruzko eztabaida gehitu zitzaion, eta horrek arrakala sakondu baino ez zuen egin, generoa oso modu mugatuan jorratzen baita MGHn; are gehiago, emakumeen aldeko mugimenduak eta mugimendu feministak bultzatuta hitz egin izan da gai horri buruz.

Bide horretan aurrera egin ahala, berdintasuna lortzearen aldeko lankidetzari buruzko zenbait teoria, estrategia eta ikuspegi garatu dira. Lehenik eta behin, emakumeen egoera hobetzearen aldeko apustua 70eko hamarkadan zehaztu zen, **Emakumeak Garapenean** izeneko ekimen batek bultzatuta. Ikuspegi horrek garapenaren *objektutzat* hartzen ditu emakumeak. Emakumeak zaurgarritzat hartzen ditu, batez ere ekonomikoki oso mugatuta daudelako, eta haien gaitasunaz

baliatu nahi du, beren familien eta komunitateen premiei aurre egiteko. Emakumeen garapena, horixe da une honetan helburu nagusia, batez ere esparru ekonomikoan eta lan-munduan; baina, edonola ere, emakumeek beren gizartean pairatzen dituzten genero-desberdintasunei ez die heldu ere egiten. Izan ere, emakumeak baino ardatz hartzen ez zituen ikuspegi horrek arazo ugari ekarri zitkien emakumeei berei: lehengoak baino lanaldi eta lan-karga handiagoak, hain zuzen. Horregatik, hain zuzen, 8oko hamarkadan beste estrategia bati ekin zitzaion, emakumezkoen eta gizonezkoen, bi-bien garapena bilatzen zuena, eta, bi sexuen arteko botere-harremanak desberdintasun-faktoretzat harturik, emakumeak menpekotasun-egoeran zeudela aitortzen zuena. Ikuspegi horri **Generoa Garapenean** deritzo. Errealitatea eta gizon-emakumeen arteko harremanak aldatzean, horrexetan datza aipatutako ikuspegi hori. Biak ala biak, gizonak eta emakumeak, garapen-prozesuetan subjektu izan daitezke, nahiz eta kolektibo bakoitzean ikuspegiak eta orientabideak desberdinak izango diren. Esparru ekonomikoari ez ezik, desberdintasun kultural, sozial eta politikoei ere heltzen zaie, horiek guztiak gizonek nahiz emakumeek dituzten rol ezpezifikoen ondorio direla iritzirik. Autoritate – eta botere-harremanak aldatu nahi ditu, gizarte eta familia barruko harremanak erabat demokratizatu. Generoen arteko ekitatea lortzea, horratz helburua<sup>6</sup>. Azkenik, gorago aipaturiko Beijinggo Konferentziaren ostean, Genero Ikuspegiaren Zehar Lerroekin lotutako estrategia sortu zen, jardunbide sektorialagoen eta espezifikagoen osagarri modura, emakumeek bizi dituzten desberdintasunak orekatzeko.

1997ko uztailan, Nazio Batuen Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak (ECOSOC) genero-ikuspegiaren zehar-lerroen kontzeptua honela definitu zuen: “Esparru eta maila orotan, dela legerian, dela politikan, dela programetan, planifikatutako edozein ekintzak gizon-emakumeentzat zer ondorio dituen baloratzeko prozesuari ekitea, horixe da genero-ikuspegia transbersalizatzea. Estrategia bat da, esparru politiko, ekonomiko eta sozial orotan programak eta politikak sortzean, martxan jartzean, kontrolatzean eta ebaluatzean emakumeen, eta gizonezkoen, kezkak eta esperientziak haren parte izan daitezen lortzeko, gizonentzat eta emakumeentzat, denentzat mesedegarri izan dadin, eta haien arteko desberdintasunak betikotu ez daitezen. Integrazioaren helburu behinena generoen arteko berdintasuna lortzea da”<sup>7</sup>.

---

<sup>6</sup> NBGP (2006): *Guía transversalización de género en proyectos de desarrollo*. Mexiko: NBGP. [http://www.undp.org.mx/IMG/pdf/Guia\\_de\\_Transv-de\\_Gen-en\\_Proj-.pdf](http://www.undp.org.mx/IMG/pdf/Guia_de_Transv-de_Gen-en_Proj-.pdf), 3. or.

<sup>7</sup> LANE: “Definición de la transversalización de género”, <http://www.ilo.org/public/spanish/bureau/gender/news/te2002/about/defin.htm> (2014/01/07).

Transbertsalizazio-estrategia horretan, desabantaila-egoeran dauden gizon edo emakumeen aldeko zenbait ekimen espezifiko bultzatzen dira, berdintasunaren arloan eta ekintza positiboenean. Berdintasunaren aldeko jardunbide espezifikook emakumeak bakarrik har ditzakete ardatz, edo gizonak eta emakumeak aldi berean, edo gizonak bakarrik, garapen-lanetan parte hartu eta denak haieztaz balia daitezten. Behin-behineko neurriak dira, baina beharrezkoak, iraganean nagusi izandako bazterketa-egoeren ondorioen kontra borrokatzeko pentsatuta dauden aldetik.

Azkenik, bada gai bat, garapenerako lankidetzaren aldeko azken estrategiekin oso lotua: emakumeen ahalduntzea, alegia. Honela definitzen da ahalduntzea: “pertsonek, bizi dituzten egoeretan aldaketa positiboak sustatze aldera, gizartalde bateko kide diren aldetik beren gaitasun, konfiantza, ikuspegi eta protagonismoa indartzen duteneko prozesua”<sup>8</sup>. Lankidetz-estrategiak emakumeen ahalduntze ekonomiko eta politikoa ardatz dira nagusiki.

Beraz, konpromiso, akordio eta estrategia asko landu izan dira gizon-emakumeen artekoa harreman horizontala izan dadin, pertsona bakoitzak bere burua erabat garatu dezan, emakumeei ezarrita datozkien kanonak alde batera utz daitezten, mugatu baizik ez baitituzte egiten, eta gizonetikiko desberdintasun-egoeran jartzen. Nolanahi ere, datu asko daude, halaber, garbi uzten dutenak genero-erolek sekulako eragina dutela emakumeen eta gizonen bizitzetan. Ondoren, desberdintasun-egoera horietaz jabetze aldera, zenbait datu aipatuko ditugu; izan ere, hori dela-eta, gizonak eta emakumeak beren egoera aldatzeko aukera desberdinak dituzte, eta, hala, desberdintasun-egoerak betikotu egiten dira. Gaur egun, “garapenerako laguntza ofizialak ematen hasi ginela berrogeita hamar urtetik gora joanak direnean, emakumeen aurkako bazterketa-forma ororekin amaitzeari buruzko konbentzioa (CEDAW) exekutatzan hasi zela hogeita hamar urte joanak direnean, eta Bejingeko Jarduera Plataforma abiatu zela hamalau urte joanak direnean, munduan muturreko pobrezia-egoeran dauden %70 emakumeak eta neska gazteak dira”<sup>9</sup>. Aldi berean, gainera, praktikan, gizon-emakumeek munduko eskualde bakar batean ere ez dituzte eskubide sozial, ekonomiko eta juridiko berberak. Generoen arteko arrakala, beraz, presente dago munduko herrialde guztietan, eta, oraintsueneko joerei erreparatuz gero, gainera, gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzearren urrats gutxi ari gara egiten.

---

<sup>8</sup> *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*. Esteka: <http://www.dicc.hegoa.ehu.es/listar/mostrar/86>

<sup>9</sup> Cravio, N. eta Antolín, L. (koord.) (2009): “La movilización por la igualdad de género y la eficacia de la ayuda. Acciones, estrategias, éxitos y desafíos”, *Documento de trabajo*, 36. Madrid: Fundación Carolina.



## 2. Garapenerako lankidetzeta eta generoaren aldeko apustua: txanpon beraren aurkia eta ifrentzua?

1975ean, Nazio Batuek Emakumearen Nazioarteko Urtea aldarrikatu zuten, eta, horren kariatara, Nazioarteko Konferentzia bat egin zuten Mexiko Hirian. Giza garapenarekin lotutako arazoren bat identifikatzean, auzi horri urtebete eskaintzeko mekanismoak abiarazten ditu Nazio Batuen Erakundeak, nazioarteko komunitateak haren berri jakin dezan, batetik, eta Nazio Batuetako kide diren estatuetako gobernuak beren herrialdeetako egoera azter dezaten, bestetik, lekuan lekuko agentziek –bakoitza dagokion aginpide espezifikotik abiatuta– gogoeta egitea eta estrategiak sortzea helburu hartuta<sup>10</sup>.

Egoera hori, jakina, aurreko urteetan emakumeen mugimenduek eta/edo mugimendu feministek, batez ere Estatu Batuetan eta European, emakumeen egoera hobetzearen alde egindako lanaren ondorio izan zen. Alde horretatik, esloganak berak ere, “Berdintasuna, Garapena eta Bakea”, propio aukeratua dirudi: ezin lor daiteke berdintasun erreal eta iraunkorrik, gerra eta/edo pobrezia eta bazterketa nagusi dituen mundu batean. Mexikoko Konferentzia haren ostean, Emakumeari buruzko Nazio Batuen Lehen Konferentzia egin zuten, eta, gero, haren atzetik, Kopenhagekoa (1980), Nairobigoa (1985) eta Beijingekoa (1995) etorri ziren. Aldi berean, 1975eko Emakumearen Nazioarteko Urtearen ostean, Berdintasunaren, Garapenaren eta Bakearen aldeko Nazio Batuen Hamarkada egin zuten.

Aurrez ere esan dugunez, goeko hamarkadako goi-bileretan, hala nola Beijingeko Goi-bilerako Jarduera Plataforman, Giza Eskubideei buruz 1993an Vienan

---

<sup>10</sup> LANE: “La década de las Naciones Unidas y la CEDAW”. Esteka: [http://www.ilo.org/public//spanish/region/ampro/cinterfor/temas/gender/oit\\_igu/inst\\_int/inst\\_int2.htm](http://www.ilo.org/public//spanish/region/ampro/cinterfor/temas/gender/oit_igu/inst_int/inst_int2.htm) (2014/02/02)

egindako Deklarazioan, 1994ko Populazioari eta Garapenari buruzko Konferen-tziako Jarduera Plataforman, 1995eko Gizarte Garapenari buruzko Jarduera Pla-taforman, Munduko Gailur Sozialesan, Milurtekorako Helburuetan eta Segurtasun Kontseiluaren 1325 Ebazpenean (2000)<sup>11</sup>, emakumeen aldeko pauso normatibo ugari eman ziren. Aurrerakada paregabea izan da, inolako zalantzarik gabe, berdintasunean, haren transbertsalizazioan eta hura beste politika batzuekin uztar-tzeko bidean aurrera egiteko estrategiak, politikak, proposamenak eta jardunbi-deak garatzeari dagokionez.

Metodologia gisa genero-analisiak erabiltzeari esker, generoen arteko desberdin-tasunak bistaratu egin dira, eta, hala, argi ikus daiteke desberdintasunok zenbate-raino dauden presente garapen-proiektu eta – politiketan. Zailtasun, erresistentzia eta oztopoak identifikatzeko ere balio izan du, bai eta aurrera egiteko proposamen eta alternatibak nondik etor litezkeen jakiteko ere. Horren guztiaren ondorioz, gaur egun gero eta kontzientzia handiagoa dugu, eta argi dakigu gizarte orotan oina-rri-oinarrizkoa dela gizon-emakumeen arteko egoera – eta posizio-berdintasuna, genero-berdintasuna garapenaren parte osatzaile eta bitarteko baita aldi berean.

2000. urtearen hasieran, zenbait proposamen egin ziren mende berriari begira, Milurtekoko Deklarazioaren eta Milurtekoko Garapen Helburuen bitartez. Milur-tekoko Garapen Helburuak 8 helburutan, 18 xedetan eta 48 adierazletan zehazten dira. Horietako bi, 3. eta 5. helburuak, argi eta garbi lotuta daude gizon-emakumeen arteko berdintasunarekin, bai eta 8. helburua ere, garapenean aurrera egiteko elkarrekin jardun beharraz baitihardu, garapena finantzatzeko mekanismoak ezar-ri beharra proposatzeaz batera. Ondoren, eraginkortasunari buruzko agendak beste bost printzipio ezarri zituen, garapena modu eraginkorragoan finantzatzea helburu hartuta. Hala ere, generoa ia kontuan hartu ere ez du egin eraginkortasu-nari buruzko agenda horrek. Honatx zein diren eraginkortasunari buruzko agen-daren bost printzipioak<sup>12</sup>:

- Laguntzak jasotzen dituzten herrialdeak beren garapen-plan eta – estrategiez **jabetzea**.
- Laguntza ematen duten herrialdeek laguntzak jasotzen dituztenen planak ba-  
besteko prozedura eta sistema nazionalak erabiliz elkarrekin **bat egitea**.

---

<sup>11</sup> Emakumeei, Bakeari eta Segurtasunari buruzko 2000. urteko 1325 Ebazpena.

<sup>12</sup> Better Aid: “¿Qué es la Declaración de París sobre la eficacia de la ayuda al desarrollo?”. Esteka: <http://cso-effective-ness.org/IMG/pdf/declaracionparis.pdf> (2014/01/03)

- Laguntzak ematen dituzten herrialdeen jardunbideak **harmonizatzea**, laguntzak jasotzen dituztenengan administrazio – eta transakzio-kostuak minimizatzeko, beren jardunbideak harmonikoagoak, gardenagoak eta eraginkorragoak izan daitezten.
- **Egindakoen araberako kudeaketa**, laguntzak eman eta jasotzen dituzten herrialdeek, emaitzetan oinarriturik, eta eskura duten informazioa erabiliz, erabakiak hartzeko prozesua hobetu dezaten.
- **Elkarrekiko erantzukizuna**, laguntzak ematen dituzten herrialdeak eta garapen bidean daudenak elkarri kontu eman diezaioten, garapenean aurrera egiteko.

Dena dela, arauen mailan izandako garapen garrantzitsu hori gorabehera, garapenerako laguntzaren errealitateak oso bestelako irudia erakusten digu. Laguntzak ematen dituzten herrialdeen nazio-mailako diru-sarreretatik garapenerako laguntza ofizialerako ematen den diru-kopuruari dagokionez, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, joera beheranzkoa izan da: 1960an, diru-sarreretatik %0,5 ematen zen; 2006an, aldiz, %0,25, batez beste<sup>13</sup>. Laurogeita hamarreko hamarkadan, gogor kritikatu zuten Garapenerako Laguntza Ofiziala<sup>14</sup>, pobrezia aurre egitean oinarrituta egon ez dela eta, gaur egun ere, oso aldakorra eta iragarrezina izaten jarraitzen duela argudiatuta. Gainera, erakundeak ez dira politika horietaz jabetu (politikei buruzko elkarrizketa, bat-egitea, kontu-ematea), eraginkortasunari buruzko agendak hala agintzen zuen arren; koordinazioa ere oso eskasa izan da, eta proiektuen araberako ikuspegiak, berriz, gobernuak ahuldu ditu. Horretaz guztiaz gain, 2008an krisi finantzario eta ekonomikoa hasi zenez geroztik, Garapenerako Laguntza Ofizialerako finantzazioak behera egin du, nabarmen.

Garapenerako laguntza generoarekin loturik oraingoan, ELGA 1999-2003 txosteneko datuek diotenez<sup>15</sup>, Garapenerako Laguntza Ofizialaren %0,3 soilik erabili zen “emakumeak garapenean” delakoarekin lotutako jardueretan. Txosten berean adierazten denez, orain arte egindako aurrerapenak gorabehera, generoaren auzia aipatu ere ez da egiten ez Pobrezia Murrizteko Estrategiei buruzko Dokumentuetan, ez Milurtekoko Garapen Helburuetan egindako aurrerapenei buruzko txostenetan, ez Ikuspegi Sektorial Zabalak (SWAP) direlakoetan.

---

<sup>13</sup> Cruz, C. (2007): *¿Quién se apropia del desarrollo? Contribuciones al debate sobre género y la nueva arquitectura de la ayuda*. Bilbo: Hegoa. 8. or.

<sup>14</sup> *Ibidem*, 10. or.

<sup>15</sup> *Ibidem*, 11. or.

Generoari buruzko analisiari esker, zenbait estrategiari ekin zaie, genero-kontuekin lotutako politikari, plangintzei eta aurrekontuei jarraipena egiteko. Genero-ikuspegiaren transbertsalizazioak hauxe du helburutzat: ikuspegi hori programazioan eta kudeaketan txertatzea, genero-berdintasuna lortzeko, eta, beraz, emakumeen eskubideak sustatzeko. Zentzu horretan, genero-ikuspegiari loturik, eta aurrekontuak ardatz hartuta, egindako analisiak eta hori dela-eta egindako ikerketa gutxi batzuek agerian utzi dutenez, lankidetzaproiektu eta – prozesuetan, emakumeen eskubideak kanpoan gelditu dira.

Nabarmentzekoa da, gainera, ia batere txostenik ez dugula eskura diagnostikoari, jarraipenari eta kontu-ematei buruz, eta, beraz, ez daukagula jakiterik zenbaterainoko eragina duten politika horiek emakumeen egoeran eta posizioan. Beharrezkoa da, horrenbestez, eraginkortasunaren agendan giza eskubideetan eta genero-justizian oinarritutako eskaerak jasotzea, zenbait mekanismo abiarazi eta, berdintasuna eta bazterketarik eza helburu hartuta, gure politikan kontu-emateak, jarraipenak eta hobekuntzak aintzat hartuko baditugu<sup>16</sup>.

Ibilbide honetan, gizarte zibilaren ekintzek ekarri dituzten aurrerapen gehien-gehienak. Izan ere, gizarte zibilak berebiziko garrantzia izan zuen Emakumeen Nazioarteko Konferentzien sorreran, bai eta goeko hamarkadako goi-bilerenetan ere, eta garrantzitsu izaten jarraitu du gero ere, Milurtekoko Garapen Helburuak betetzen ziren jakiteko egindako jarraipen eta ebaluazioetan. Kasu gehienetan, garbi ikusi da akordioetan eta erabakietan eragina izateko gaitasuna bazuela gizarte zibilak, baina haiek praktikan jartzeko muga asko zeudela. Ekimen horiek martxan jartzeko eragozpenetako bat, eta hala aitortzen dute denek, finantzaketarik eza da. 2000. urte hasieran Milurtekoko Deklarazioa egin zenez gerotik garbi ikusi zen finantzaketa behar-beharrezkoa zela, eta horrixe aurre egin nahi izan zitzaion, hain zuzen, Milurtekoko Garapen Helburuen bitartez, haietako zortzigarrenean ere aipatzen baitzen Garapenerako Nazioarteko Elkarte bat sortu beharra. Helburu horrek Iparraldeko nahiz Hegoaldeko herrialdeak lotzen zituen, baina, azkenean, ez zuten batere konpromisorik hartu. Horrek garbi erakusten du konpromiso politiko errealik ez dagoela 2015. Urtean Milurtekoko Garapen Helburuak bete daitezten.

---

<sup>16</sup> Printzipio horiek 1979ko CEDAW (Emakumeen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatze Konbentzioa) izeneko ekimenaren bitartez garatu dira, bai eta bestelako ebazpenen bitartez ere, hala nola Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzearen aldeko Nazioarteko Eguna (1999), Emakumei, Bakeari eta Segurtasunari buruz Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluak 2000. urtean hitzartutako Ebazpena, eta Emakumeen aurkako Indarkeriari buruz Nazio Batuen Erakundeko Giza Eskubideen Batzordeak 2005ean hitzartutako Ebazpena (E.CN.4/2005/L.51).



Hala, bada, goeko hamarkadaz geroztik, bi joera izan dira nagusi, gero eta sakonago eta argiago. Alde batetik, goeko hamarkadan egindako goi-bileretan hartutako konpromisoei buruzko ikuspegia dago; haietan, berdintasuna, garapen iraunkorra, parte-hartzea eta pertsonak hartu ziren ardatz. Eta, beste alde batetik, Washingongo Adostasuna deritzonaren inguruan sortutako korrontea legoke; haietan, inbertitzeko eskubide korporatiboak, merkataritza eta jabetza hartzen dira ardatz. Azken batean, bi errealitate jartzen dira aurrez aurre: pobrezia handitu baino egiten ez duten politika makroekonomikoak, batetik, eta garapenari buruzko guztiz bestelako proposamen edo eredu bat, bestetik. Eredu horrek oinarri-oinarrizko zenbait ezaugarri ditu: parte-hartzea, erakunde finantzarioen kontrola, bestelako harreman – eta garapen-eredu bat, iraunkortasuna, bizi den ororen zaintza eta generoaren transbertsalizazioa, esate baterako.

Asko dutenen eta gutxi dutenen arteko arrakalarekin amaitu nahi du proposamen horrek, bai eta korporazio handien eta herritarren antolakunde komunitarioen arteko arrakalarekin ere. Dikotomia hori oso nabarmen ikusi da azkenaldian egindako zenbait forotan; haietan, izan ere, foro instituzionalarekin batera, beste foro paralelo batzuk ere egin dira. Aurkaritza hori, gainera, krisi finantzario eta ekonomiko bete-betean jazo da; hau da, pobrezia errotik erauzi beharrak eta terrorismoaren aurkako gerrak Milurtekoko Garapen Helburuak erdiesteko konpromisoak ahuldu, eta indarrak militarismora bideratu eta ekonomia nahiz gizarte ugari ezegonkortu direneko sasoian.



### 3. Generoaren eraginkortasunari buruzko agenda

Testuinguru horretantxe sortu zen eraginkortasunaren agenda, eta halaxe izenpetu zen Parisko Deklarazioa. Akordio hori 2005eko martxoaren 2an izenpetu zuten ehunetik gora herrialdek, garapenaren laguntza ofizialaren eraginkortasuna hobetzea helburu hartuta. Deklarazio horrek gorago aipaturiko oinarritzko bost printzipioak zehaztu zituen: jabetzea (hots, laguntzak jasotzen dituzten herrialdeek beren garapen-politikak eta – estrategiak definitu beharra, eta laguntzak ematen dituztenen ekintzen arteko koordinazioa); bat egitea (hau da, laguntzak ematen dituzten herrialdeek laguntzak jasotzen dituztenen estrategiak eta prozedurak indartu beharra); harmonizazioa (ekintza garden, harmonizatu eta eraginkorrak); egindakoen arabera kudeaketa; eta elkarrekiko erantzukizuna<sup>17</sup>.

Emakumeen eskubideen aldeko taldeek kezkatuta begiratzen zieten printzipiooi, genero-ikuspeirik ez zutela eta. Generoen arteko berdintasuna, eta ingurumena eta giza eskubideak oinarri dituen ikuspegia baztertzea, horixe leporatzen zioten taldeok, zehatz esatera. Gizarte zibileko zenbait taldek ziotenez, Deklarazio hura oso teknikoia izan zen, garapenaren aldeko ekintzak despolitizatzen zituen, eta esperientzian oinarrituta adostu eta goeko hamarkadan Nazio Batuen Konferentzian babespean egindako Goi-bileretako Deklarazio gehienek jasotzen zituzten ikuspegi eta aukerak baztertzen zituen. Goi-bilera haietan, gainera, herrialde eta gizarte-antolakunde askok hartu zuten parte. Horregatik, hain zuzen, gizarte zibileko antolakunde gehienek arabera, “Parisko Deklarazioa laguntzen eraginkortasunari buruzko agenda ulertzeko eta ezartzeko esparru bidegabea da,

---

<sup>17</sup> Auzi horren eta GGKE-en jarreraren berri sakonago jakiteko, ikus bilduma honetako 1. koaderno.

desberdintasunetan oinarritua”<sup>18</sup>, besteak beste, generoa aintzat hartzen ez delako. Izan ere, generoa deklarazioko 42. paragrafoan baino ez da aipatzen; hauxe dio paragrafo horrek: “zeharkako beste proposamen batzuetan ere beharrezkoak dira antzeko harmonizazio-saiakerak; generoen arteko berdintasunari eta antzeko beste arazo batzuei buruzkoetan batez ere; baita, tartean, diruz lagundutako proiektuei buruzkoetan ere”<sup>19</sup>. Beste inon, baina, ez da horretan sakontzen, ez diagnostikoan, ez konpromisoetan, eta Nazio Batuetako kide diren herrialdeen plangintzetan ere ez zaio generoari inolako lehentasunik ematen.

Hala, Parisko Deklarazioari buruz gizarte zibilak egindako balorazioan, honako alderdi hauek azpimarratzen dira<sup>20</sup>:

- Oso prozesu teknifikatua da, kudeaketa-prozeduretan eta laguntzen banaketan oinarritua, eta garapen-helburuak lortzeko bidean laguntzek izan dezaketen eraginari behar besteko garrantzirik ematen ez diona.
- Gardentasunik eta informazio-trukerik eza ere ezaugarri ditu prozesu horrek.
- Herrialde bakoitzeko erronka politiko, sozial eta ekonomikoak ez ditu serioски aintzat hartzen.
- Parisko Deklarazioaren printzipioak aplikatzean, laguntzak ematen dituzten herrialdeek zer paper jokatzeko duten ez dago batere argi.

“Parisko Deklarazioak oinarri duen esparrua zalantzan jarri zuten gizarte zibileko antolakundeek (haien iritziz, Deklarazioa teknikoegia da, eta ez dio batere jaramonik egiten laguntzen alderdi politikoari). Beste alde batetik, prozesuan generoen arteko berdintasunik aipatzen ez dela, horixe kritikatu izan dute emakumeen eskubideen aldeko taldeek”<sup>21</sup>.

Deklarazioak, beraz, ez die erronka politikoei aurre egiten, eta laguntzetan zenbat diru eman behar den ere ez du aipatzen, gainera. 2000. urtean Milurtekoko

---

<sup>18</sup> Alemany, C, Craviotto, N. Hopenhaym, F. (2008): *Implementando la Declaración de París: Implicaciones para la promoción de los derechos de las mujeres y la equidad de género*. Council for International Cooperation (CCIC). 3. or.

<sup>19</sup> ELGA (2008): “Declaración de París sobre la eficacia de la ayuda al desarrollo y programa de acción de Accra” <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/34580968.pdf> (2014/01/03)

<sup>20</sup> Alemany, C, Craviotto, N. Hopenhaym, F. (2008): *Implementando la Declaración de París: Implicaciones para la promoción de los derechos de las mujeres y la equidad de género*. Council for International Cooperation (CCIC). 8.-11. or.

<sup>21</sup> Craviotto, N. eta Antolín, L. (koord.). (2009). “La movilización por la igualdad de género y la eficacia de la ayuda. Acciones, estrategias, éxitos y desafíos”, *Documento de trabajo*, 36. Madrid: Fundación Carolina.

Deklarazioarekin hasi eta, gero, Milurtekoko Garapen Helburuetan zehaztu zen pobrezia aurre egiteko nazioarteko saiakerari ekin zitzaionetik bost urte igaroak zirela aprobetxatuz, egindakoari buruzko ebaluazio bat egin zen 2005ean. Ebaluazioa ez zen oso itxaropentsua izan, baina garbi erakusten zuen, alde batetik, herrialde askok ez zutela ezer egiteko batera borondate politikorik, eta, beste alde batetik, nazioarteko komunitateak oso baliabide gutxi eman zuela pobrezia aurre egiteko. 70eko hamarkadan adostutako zenbait hitzarmen (BPGaren %0,7 ematearena, adibidez) herrialde gutxi batzuek (urteen arabera, hiruzpalauk) betetzen zituzten.

Horren aurrean, gizarte zibileko antolakundeek zenbait proposamen egin zituzten: jabetzeari dagokionez, herritarrak inplikatu beharra (baita emakumeen taldeak ere); bat egiteari dagokionez, laguntzak ematen dituzten herrialdeen politikak genero-ekitatearekin bat etor daitezen saiatu beharra; harmonizazioa dela-eta laguntzen esparrua ez murrizteko asmo irmoa; giza eskubideetan eta emakumeen eskubideetan oinarritutako printzipioak egindakoen arabera kudeaketarako erabil daitezen saiatu beharra; eta elkarrekiko erantzukizunak parte-hartzea berma dezan saiatu beharra, gizarte zibil eta emakumeen talde gortor, independente eta eraginkorrak lortze aldera<sup>22</sup>.

Genero-berdintasunaren eta emakumeen eskubideen alde lanean ziharduten taldeek ez zuten parte hartu Parisko Deklarazioan. Urte batzuk geroago, 2008an, Akkrako Goi Mailako Foroa egin zuten. Foro hartan, “gizarte zibileko eragilerik ez zen egon, eta horixe izan zen, hain zuzen, kezka-iturri nagusia; batez ere, nazio mailako garapen-planak definitu, herrialdeen aurrekontu-proposamenak kontrolatu eta nazioarteko lankidetzaren antolatze lanetatik emakumeen eskubideen eta genero-berdintasunaren aldeko antolakundeak bota izana”<sup>23</sup>. Hala, eraginkortasunari buruzko agenda giltzarri bihurtu zen, “laguntzen arkitektura berria” eratu eta garapenerako laguntzak antolatzeke. Gizarte-antolakundeek uste izan zuten eztabaidetan ez egotea itzeleko oztopo gertatuko zitzaizela baliabideak behar bezala bideratzeko; batez ere, genero-berdintasunarekin eta emakumeen ahalduntzarekin lotutakoak kudeatzeko. Horren guztiaren ondorioz, talde feministek eta emakumeen antolakundeek koalizio bat egin zuten, 2008an Akkran egin beharreko Goi Mailako Foroan beren jardunbideak koordinatzeko.

---

<sup>22</sup> Alemany, C, Craviotto, N. Hopenhaym, F. (2008): *Implementando la Declaración de París: Implicaciones para la promoción de los derechos de las mujeres y la equidad de género*. Council for International Cooperation (CCIC). 3. or.

<sup>23</sup> Craviotto, N. eta Antolín, L. (koord.) (2009): “La movilización por la igualdad de género y la eficacia de la ayuda. Acciones, estrategias, éxitos y desafíos”, *Documento de trabajo*, 36. Madril: Fundación Carolina. 2. or.

Orduko hartan, genero-berdintasunaren alde ziharduten gizarte-antolakundeek lankidetzatza – eta koordinazio-lan itzela egin zuten; Nerea Craviottok eta Luisa Antolínek (2009) idatzitako testuak bikain ematen du horren berri. Bilera eta topaketa ugari egin ziren, bai eta nazioarte mailako kontsulta bat ere, Akkrako Goi Mailako Foroan aurkeztu, esan eta egin beharrekoak taxuz prestatzeko; lan eskerga egin zen, esate baterako, Ghanako gizarte zibileko antolakundeak Goi Bilera hartarako ondo presta zitezen.

Horren guztiaren fruitutzat hartu behar genuke Akkrako Ekintza Agendak berak aitortutakoa: “hein batean, genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea Parisko Deklarazioan jasotzeko gobernuak egindako esfortzua oso kontuan hartzekoa da”<sup>24</sup>; baina, hala eta guztiz ere, aitortu ere aitortzen da aurrera egindako urratsak oso apalak izan direla. Lorpen batzuk ere aipatzen dira, hala nola genero-berdintasunari merezi zuen garrantzia eman izana eta datuak sexuen arabera bereizirik eskuratzeko aukera eman izana. Edonola ere, Ekintza Agendako hogeita hamabi paragrafoetatik hirutan bakarrik aipatzen da auzi hori.

Nolanahi era, 2008aren amaieran, ELGAko Garapenerako Laguntzari buruzko Batzordeak printzipioen gida bat sortu zuen, eraginkortasuna, genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko. Dokumentu horretan, Akkrako Ekintza Agenda eta Parisko Deklarazioaren printzipioak ardatz hartuta, zenbait irizpide ematen eta generoaren ikuspegia praktikan jartzea errazteko zenbait proposamen egiten ziren, bai eta jarraipenak egitea eta gaitasunak sortzea erraztekoak ere.

Akkrako Ekintza Agendaren berri eman zen urtean bertan, Monterreyko Adostasuna berrikusi zuten Dohan, eta han ere genero-berdintasunaren alde eman beharreko baliabideak hartu zituzten eztabaidagai. 2011. urtean. Busan hiriko Goi Mailako laugarren Foroa egin zen. Foro hartan parte hartu zuten lehen aldiz gizarte zibileko antolakundeek, eta “Garapenerako Lankidetzatza Eraginkorrerako Munduko Aliantza”<sup>25</sup> deritzona adostu zuten denen artean. Asko idatzi da bilera eta aliantza haiei buruz; guk ere, aparteko dokumentu batean lantzen ditugu Busango Foroan gizarte zibilak egindako proposamenak<sup>26</sup>. Dokumentu honetan, genero-berdintasunarekin eta emakumeen eskubideekin lotutako ekarpenak eta urratsak baino ez ditugu kontuan hartuko.

---

<sup>24</sup> Craviotto, N. eta Antolín, L. (koord.) (2009): “La movilización por la igualdad de género y la eficacia de la ayuda. Acciones, estrategias, éxitos y desafíos”, in *Documento de trabajo*, 36. Madril: Fundación Carolina. 9. or.

<sup>25</sup> Aurrerapauso eta atzerapausoei buruz gehiago jakiteko, jo esteka honetara: <http://cso-effectiveness.org/-alianza-de-busan-para-una,192-.html?lang=es> (2013/12/21)

<sup>26</sup> Ikus bilduma honetako 1. koadernoak.

Elkarlan horren fruitu nagusietako bat “Emakumeen antolakundeen eta genero-ekitatearen defendatzaileen eskariak”<sup>27</sup> izeneko dokumentua dugu. Dokumentuan, besteak beste, hauxe eskatzen zaio Goi Mailako 4. Foroari: ezar ditzala garapenerako lankidetzak inklusibo eta bidezko bat eraikitzeko oinarriak, eta, beraz, aintzat har ditzala emakumeen eskubideak eta genero-berdintasuna. Horiek horrela, tokian tokiko jabekuntza demokratikoa garapenerako laguntzaren oinarritzat hartzearen alde egin zuen Emakumeen Foro Globaleko Deklarazio Politikoak. Laguntzen eraginkortasunaz haratago joan eta, giza eskubideei buruzko nazioarteko araugintzarekin bat etorritik eta emakumeen eskubideak, garapenerako eskubidea eta ingurumen-justizia betearaziz, giza eskubideetan oinarritutako garapenerako lankidetzak nazioarteko elkartasun-eredu berritzaletan hartzearen beharra ere nabarmendu zuen. Foro aldeaniztun eta inklusibo bat antola dadila eta hazkunde ekonomikoak emakumeen ahalduz (bazarrenari, batik batik) lagundu diezaiola ere galdegiten zen, eta, horrekin batera, ezinbestekotzat hartzen zen, emakumeen garapena sustatzeko, eskubideetan oinarritutako garapen-ikuspegi bati eustea. “Deklarazioko paragrafoetako batean (hogeigarrenean) garbi nabarmentzen denez, gizon-emakumeen arteko berdintasuna eta emakumeen ahalduz garrantzi handikoak dira elkartasuna eta iraunkortasuna oinarri dituen garapen-eredu bat lortzeko”<sup>28</sup>; horretan, beharrezkotzat hartzen da sexuaren arabera bereizirik adierazleak edukitzea, eta, berdintasunari eta emakumeen ahalduzari dagokienez, nazioartean hartutako konpromisoak argi eta garbi adieraztea.

Foro horretan lortutakoen balorazioari dagokionez, berriz, Parisko Deklarazioa egin zenetik lehen aldiz, BetterAid erakundeak onartzen duenez, “jabekuntza demokratikoa garapenerako lankidetzan oinarritzako printzipiotzat hartu, eta hura gauzatzeko itun inklusiboak egin beharra azpimarratzen da. Itun berri horrek beste ikuspuntu bati heldu dio: eraginkortasunaren agenda teknikoa atzean utzi, eta agenda inklusiboago eta politikoago baten alde egin du, laguntza emate huts-hutsean oinarritutako garapen-ereduaren ordez eskubideetan oinarritutako garapen-erakundeak ardatz harturik”<sup>29</sup>. Hori dela eta, begi onez ikusten da beste eragile batzuk tartean sartzea, bai nazioarteko agentziak, bai nazio-mailako gobernuak, bai eta auzi hauetatik go-goeta egiten ibilitako gizarte zibileko kideak ere, denek batera lan egin eta gizarte zibileko erakundeen eskariak biltzen dituzten Istanbuleko Printzipioak errespetatu daitezkeen. Hala ere, jarraipen – eta ebaluazio-lanei dagokienez, konpromiso jakinik

---

<sup>27</sup> Better Aid. (2011 a): “Demandas de las Organizaciones de Mujeres y Defensoras de la Equidad de Género”.

<sup>28</sup> Zabala, I. eta Martínez, M. J.: “Una visión de género de la agenda del desarrollo y de la eficacia de la ayuda”. 9. or.

<sup>29</sup> Better Aid. (2011b): “Declaración de BetterAid sobre la Alianza Mundial para una cooperación al desarrollo eficaz”.

ez da ia batere hartu. “Nazio Batuen baitan garatzeko moduko lankidetzeta-sistema ekitatibo berri bat ezar dadin eskatzea gakoa izan da, bai eta kontu-emateak ELGaren monitorizazio-sistema berri batean oinarritu behar ez izatea ere, eta zenbaterainoko emaitzak lortu diren jakiteko produktuak (emandako laguntzak) aztertu baino gauza gehiago egin behar izatea ere bai”<sup>30</sup>.

Genero Berdintasunaren eta Garapenaren aldeko Ekintza Plan Bateratua sortzeko Hego Koreak eta Estatu Batuek egindako lana aitortu zuten emakumeen erakundeek, bai eta, horrekin batera, Goi Mailako 4. Foroan genero-berdintasuna aintzat har zedin Hego Koreako gobernuak egindakoak ere. Aldi berean, baina, garbi esan zuten komenigarria litzatekeela aurrez hartutako konpromisoak, hala nola Beijingeko Ekintza Plataforma eta Nazio Batuetako Segurtasun Kontseilua- ren Ebazpenak, aitortzea eta gauzatzea. Emakumeen eskubideak eta ahaldun- tzea finantzatzeko estatuek egindako ezein ekarpen ere begi onez ikusi zuten, eta gobernuei hertsatuki eskatu zieten finantzaketen bitartez susta zitzatela emakumeen eskubideak. Nolanahi ere, gogoan hartu behar da konpromiso ho- riek guztiak garapenerako laguntzak murrizten ari zireneko sasoian hartu zirela.

Eztabaida horrekin batera, beste ekimen batzuk ere izan dira, hala nola Monterrey- ko Adostasuna, erreforma ekonomikoek genero-berdintasunean izan ohi duten eragina ez aitortzeagatik feminismoak gogor kritikatu zuena. Geroago, “Garape- nerako Finantzaketari buruzko 2008ko Dohako Deklarazioan, genero-berdinta- sunari buruzko konpromiso bat jaso zen (19. artikulua). Hala ere, gizarte zibilak aukera antzutzat hartu izan du Dohako Deklarazio hura, hartan batere baliabide- rik ematen ez zelako, Genero Berdintasunerako Finantzaketari buruz “Comission for the Status of Women” delakoaren 52. Biltzarreko saioetan egindako gomen- dioak gorabehera”<sup>31</sup>.

Emakumeen erakundeek lanean jarraitu dute, lan erreproduktiboa eta zaintza onartu eta horren inguruan paradigma inklusibo, iraunkor eta zuzen bat sor da- din, lan duina sustatu eta emakume, neska gazte eta, oro har, pertsona guztien giza eskubideak onar daitezen. Eta, jakina, baita Parisko Deklarazioan aipatzen ziren genero-adierazleak eta generoaren eraginaren azterketak onar eta egin dai- tezen ere. “Ezinbestekoa da ikuspegi integral bati heltzea, Parisko Deklarazioaren

---

<sup>30</sup> Better Aid (2011a): “Demandas de las Organizaciones de Mujeres y Defensoras de la Equidad de Género”.

<sup>31</sup> Askoren Artean (2010): *Contexto de la política actual de igualdad de género y desarrollo: ¿qué lugar ocupará la cooperación española y la sociedad civil?* Madril: Campaña Muévete por la Igualdad. Es de Justicia.



eraginaren jarraipena egitean antzekoak diren lanak ondo uztartzeko”<sup>32</sup>. Halako ikuspegi batek dagoeneko zenbait txosten (Milurtekoko Garapen Helburuak, Emakumeen aurkako Diskriminazio Era guztiak Ezabatzeko Konbentzioa eta Nazio Batuen Garapen Programa, esate baterako) egiten hasiak diren erakundeak har ditzake erreferentziazat. Eta, horrez gain, partaidetza-modu berriak ere aintzat hartu behar lituzke ikuspegi horrek, eta eskubideetan eta gobernagarritasun global berritzaile batean oinarritutako ikuspegi bati heldu.

Estatuei dagokienez, garbi ikusten da 2004-2008 urteetatik hona, nazioartean gertatzen ari zirenek baldintzaturik, erakundeen esparruan aurrerapausoak izan direla, eta hori Espainiako demokraziako lehenbiziko gobernu paritarioaren borondate politikoari zor zaiola. Sasoi horretan, zenbait ekimen jarri ziren martxan: Generoa Garapenean izeneko estrategia, gizon eta emakumeen arteko Berdintasun Legea, Berdintasunari buruzko Plan Estrategikoa, eta emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruz hitzartutako 1325 Ebazpenaren inguruko Espainiako Lankidetzaren Plana, besteak beste.

Testuinguru horretan, genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea, biak ala biak eskubideen ikuspegian errotuta daudela, lehen tasun estrategiko gisa finkatu dira, eta esparru instituzionala eta baliabideak ere lortu dituzte. Are gehiago: zenbait koordinazio-mekanismo ere sendotu dira; Lankidetzaren Kontseiluko generoari buruzko taldea eta GEDEA sarea, besteak beste.

Aurrerapauso horien guztien muinean premisa hau dago: “garapenaren eraginkortasunik gabe ez dago laguntzaren eraginkortasunik, eta genero-berdintasunaren eta emakumeen eskubideen ikuspegi gabe, laguntzaren eraginkortasunik ez gaitu garapen eraginkor batera eramango, pobrezia eta desberdintasunek ez dute behar egingo, eta, beraz, ez ditugu Milurtekoko Garapen Helburuak erdietsiko”<sup>33</sup>. Eta, horrez gain, garapenerako laguntzaren helburuak erdiesteko, ezinbestekoa da merkataritzari, zorrari, lankidetzari eta nazioarteko gobernagarritasunari buruzko politika publikoak koherenteak izatea.

Nolanahi ere, bide horretan berdintasunaren aldeko apustu hori zenbait ekimenen bitartez zehaztu da, eta, hori dela eta, hori dira, esate baterako, 2007ko Gizonen

---

<sup>32</sup> Alemany, C, Craviotto, N. Hopenhaym, F. (2008): *Implementando la Declaración de París: Implicaciones para la promoción de los derechos de las mujeres y la equidad de género*. Council for International Cooperation (CCIC). 22. or.

<sup>33</sup> Craviotto, N. eta Antolín, L. (koord.) (2009): “La movilización por la igualdad de género y la eficacia de la ayuda. Acciones, estrategias, éxitos y desafíos”, *Documento de trabajo*, 36. Madril: Fundación Carolina). 36. or.

eta Emakumeen Aukera Berdintasunen Legea, urte bereko Berdintasunaren aldeko Plan Estrategikoa, Generoa Garapenean izeneko Estrategia eta Lankidetzaren Plan Gidatzaileak. Generoa Garapenean Sektore Estrategia (2007) izeneko “aurrerapauso itzela izan da Espainiako lankidetzak zenbait irizpide izan eta, teoriko-ki bederen, genero-ikuspegia Milurtekoko Garapen Helburuetan txertatzeko”.<sup>34</sup>

Beijingeko Ekintza Plataformaren aldeko apustua egin zenetik, Lankidetzaren Plan Gidatzaileetan zehaztutako estrategia ugari abiarazi dira. Estrategia horietan, partaidetza politikoa eta emakumeen lidergoa lehenetsi dira, bai eta zaintzan oinarritutako ekonomia ere. “Partaidetza politikoa eta emakumeen lidergoa garrantzi handikoak dira genero-berdintasuna *de facto* sustatzeko, emakume eta nesken giza eskubideak bermatzeko, gobernagarritasuna eta demokrazia babesteko, kolektibo zaurgarrienen eta baztertuen integrazioa bultzatzeko, eta auzi horien guztien inguruan tokian-tokian, nazio-mailan eta nazioartean hartutako erabaki eta konpromisoak betetzeko”<sup>35</sup>. “Elikagaien segurtasuna eta segurtasun ekonomikoa, segurtasun fisikoa, osasuna, hezkuntza eta komunitate bakoitzean menpekotasunen bat duten pertsonen zaintza”<sup>36</sup>, horri guztiari egiten dio erreferentzia zaintzen ekonomiak.

Nolanahi ere, “genero-ikuspegia Milurtekoko Garapen Helburuetan txertatu beharra onartzen duen diskurtsoa eta laguntza hori garatzean genero-ikuspegiari behar besteko garrantzia ematen ez dion diskurtsoa, biak ala biak elkarrekin batera bizi dira administrazioan. Dena dela, 2004an Plan Gidatzailea onartu zenez geroztik, urrats handiak egin dira, bai programazioari dagokionez, bai aurrekontuei dagokienez”<sup>37</sup>. Hala eta guztiz ere, 2008tik aurrera baliabide guztiak murrizten hasi ziren. Eta, are zehatzago esatera, gizarte-taldeekin loturiko zenbait eragilek diotenez, genero-ikuspegia Espainiako Lankidetzari buruzko Plan Gidatzaileko (2013-2016) zortzi orientabideetako bat den arren, berdintasunaren aldeko apustuak Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) organigraman garai batean zuen garrantzia galdu du. Gainera, “ezinezkoa da jakitea Espainiako Lankidetzak zenbat diru publiko ematen dien generoarekin lotutako sektore kritikoei, hala nola sexu – eta erreproduktzio-osasun kontuetan di-

---

<sup>34</sup> Askoren Artean (2008): *Análisis de género en la ayuda oficial al desarrollo. Promoción de la participación política y el liderazgo de las mujeres. Valoración y corresponsabilidad en la economía del cuidado*. 23. or.

<sup>35</sup> *Ibidem*. 15. or.

<sup>36</sup> *Ibidem*. 16. or.

<sup>37</sup> *Ibidem*. 26. or.

hardutenei, edo berdintasunaren alde ari diren elkarte eta erakundeei”<sup>38</sup>. Horrez gain, esan beharra dago Espainiako atzerri-politikak enpresen internazionalizazioa bultzatu bai, baina, horretan (“Espainia marka” gogoratu besterik ez dago), ez datorrela bat gorago aipaturiko politikekin, eta, gainera, ez duela bermatzen giza eskubideak betetzen direnik, emakumeen lan-eskubideak batez ere; eta zenbait sektoretan (Espainiako ekonomian giltzarri den ehungintzan, esaterako), emakumezkoak dira langile gehienak.

Prozesu horretan, nabarmen egin da aurrera sentsibilizazioan, zenbait entitatek bultzatutako genero-proiektuetan, sektore espezifikoetan (osasungintzan, hezkuntzan eta justizian, besteak beste) sustatutako genero-politiketan; aurrerapauso horiek guztiek, zalantzarik gabe, emakumeen egoera hobetzen eta emakumeek beren ahalduntzea erdiesten lagundu dute. Baina, hala eta guztiz ere, argi dago oraindik Emakumeak Garapenean ikuspegiari eusten zaiola, eta beharrezkoa dela genero-ikuspegiari heltzea. Horretarako, baina, ezinbesteko dira genero-kontuetan eskarmentua duten pertsonak lanean hastea, bai eta baliabide ekonomikoak edukitzea ere.

Politika eta jardunbide guzti-guztien transbertsalitatea, horixe da gaur egun gure erronketako bat. Horretarako beharrezkoak dira: formakuntza, metodologiak, tresnak (inpaktuak neurtzeko eta aldaketak azalertzeko). Bereziki beharrezkoa da informazio hobea, prosezuen eta politiken inpaktuak neurtze aldera.

Euskal lankidetzari dagokionez, esan beharra dago Parisko Deklarazioko zenbait printzipio aintzat hartzen zituztela gurean egindako proposamen batzuek. Unce-taren (2012)<sup>39</sup> ikerketa-lanean adierazten denez, Eusko Jaurlaritzaren lehenbiziko dekretuak jabekuntzaz ziharduen; zehatz esatera, “onuradunek garapenean eta exekuzioan parte hartu” beharra aipatzen zen. Jaurlaritzaren bigarren dekretuan ere bat-egitearen aldeko zenbait zantzu antzematen ziren, proiektuek bateragarri izan behar zutelako aitortzen baitzen bertan. 1993-1995 urteetan, proiektuak aintzat hartuko ziren erabakitzeko, laguntzak jasotzen zituzten herrialdeetako agintariei haiek espresuki onar zitzatela eskatzen hasi zitzaizen Jaurlaritzak. Geroago, baina, hori guztia erabat desegin zen. Bat-egitearen ildo horretan, proiektuak laguntzak

---

<sup>38</sup> Espinosa Fajardo, J. (2013): “La igualdad entre mujeres y hombres, por Mariano Rajoy”. Esteka: <http://www.2015ymas.org/comunicacion/destacamos/opinamos/2013/379/la-igualdad-entre-mujeres-y-hombres-por-mariano-rajoy/#.UswuHbSmakE> (2013/01/07).

<sup>39</sup> Unceta K., Amiano, I. Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012): *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGO. 73-77. or.

jasoko zituen herrialdearen garapen-helburuekin bat etor zitezela proposatu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 2001eko dekretu batean, baina baldintza hori baztertu egin zen hurrengo urteetan. Udalei dagokienez, berriz, 1995. urtean bertan, Donostiako Udalak berak aintzat hartzen zuen tokian tokiko erakundeek proiektuak onartzea.

2005ean Parisko Deklarazioa egin zenetik, beraz, tokian tokiko erakundeek berebiziko garrantzia izan dute gure herriko instituzioetako plan gidatzaile nagusietan (Eusko Jaurlaritzarenean eta foru aldundiengan, batik bat). Foru aldundien plan bateratuei (2009-2011) dagokienez, horietan tokian tokiko erakundeen irakurketak kritikoak egiten zen; izan ere, kezagarritzat hartzen zuten “oinarrizko elkarteak (emakumeenak, batez ere) baztertuta gelditzea, eta, haien ordean, gobernuak izatea protagonistak”<sup>40</sup>. Udalek ere, beren aldetik, printzipio horietan heldu zieten, baina lekuan lekuko errealitatera egokituz; Donostiako Udalak, baina, ez zituen printzipiook aipatu ere egiten.

Azken batean, “dokumentu eta adierazpen politiko askok diotenez, genero-berdintasunaren aldeko prozesuek “efektu biderkatzailea” omen dute, askoz emaitza eraginkorragoak eragiten dituztenez gero”<sup>41</sup>. Esku artean dauzkagun ikerketa eta azterketa urrien arabera, “ebidentzia ukazina da. Emakumeak beren talentua garatzeko askatasuna badute, horrek denoi egiten digu mesede: gizon, emakume eta haurrei. Emakumeek botoa eman eta kargu politiko batera iristeko askatasuna badute, gobernuak eraginkorrako jokatzeko dute, eta horrek herritarrei egiten die mesede. Emakumeak bizimodua ateratzeko eta negozio txikiak ekiteko askatasuna badute, datuek garbi dioskute haiek bultzatzen dutela ekonomia eskualde eta sektore orotan. Emakumei hezteko aukera eman eta osasun-sistema publikorako eskubidea aitortzen zaienean, beren familiek eta komunitateek aurrera egiten dute. Eta gizon-emakume guztiak eskubide berberak badituzte, nazioak egonkorragoak, baketsuagoak eta seguruagoak izaten dira”<sup>42</sup>.

Prozesu horretan tentsio ugari daude, eta genero-berdintasunaren alde daudenean kontuan hartu behar lukete hori; aipa ditzagun tentsio horietako batzuk: integrazionismoa, despolitizazioa, prozesua bera gauzatzeko mugak (ahalduntzea eta generoa), eta emakumeen aldeko diru-laguntzen murrizketa.

---

<sup>40</sup> Unceta K., Amiano, I. Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012): *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA. 76. or.

<sup>41</sup> Askoren Artean (2010): *Contexto de la política actual de igualdad de género y desarrollo: ¿qué lugar ocupará la cooperación española y la sociedad civil?* Campaña Muévete por la Igualdad. 15. or.

<sup>42</sup> *Ibidem*. 16. or.

## 4. Genero-ikuspegiaz jabetu beharra, euskal lankidetzaz deszentralizatua

Genero-ikuspegia nazioarteko lankidetzaz-politikatara eramanez izana tokian tokiko jardunetan ere igarri da. Nazioarteko ikuspegi eta proposamen ugari heldu diete erakunde publikoek eta gizarte-erakundeek, dela oraindik Emakumeak Garapenean delakoaren alde dauden talde eta erakundeek, dela emakumeen egoeran eragina duten auziei buruzko horrenbeste gogoeta eta ekintza egin dituzten talde feministek.

Testuinguru horretan, gaur egun bere horretan jarraitzen dute ikuspegiaren integrazionismoaren inguruko eztabaidek, bai eta politika eta instituzio guztietan modu formal eta despolitizatua genero-ikuspegia transbertsalizatu beharrekoek ere; horrek guztiak, jakina, fenomenoaren instrumentalizazioari buruzko kritika asko eragin ditu. Hala, bada, euskal lankidetzaz deszentralizatuaren testuinguruan ere beste zenbait lekutan izan diren arazo berberak errepikatzen dira: ahalduntzea eta generoa oker erabiltzea, eta emakumeen aldeko diru-laguntzak murriztea, besteak beste.

Dena dela, tentsio horiek aintzat hartu behar badira ere, eta onarturik gizon-emakumeen arteko berdintasuna lortzeko politikak eta proposamenak gauzatzeko zailtasun handiak daudela, garbi esan behar da euskal lankidetzaz apustu argia egin duela Plan Gidatzaileetan genero-ekitatea txertatzeko eta baliabide espezifikokoak sortzeko.

Ondoren, genero-ikuspegia garapenerako lankidetzarekin lotutako politikan eta praktikan txertatzeko ezinbesteko diren zenbait gako aztertuko ditugu.

#### 4.1. GENEROAREN IKUSPEGI INSTITUZIONALARI BURUZKO EUSKAL LANKIDETZAREN DISKURTSOA

Oro har, euskal instituzio eta elkarte gehienek (hein batean estatuko eta nazioarteko testuinguruak bultzaturik) apustu argia egin dute genero-ekitatearen alde<sup>43</sup>.

Plan gidatzaileetan eta proposamen instituzionaletan (diskurtsoen mailan behintzat), generoa garapenean delako estrategiari heldu zaio, eta, horretan, eskubideen ikuspegia hartu da oinarri, bai eta, zenbaitetan, ikuspuntu feminista bat ere (Eusko Jaurlaritzak, adibidez). Zentzu horretan, esan beharra dago, halaber, ikuspegi hori proiektu eta programen baremazioan zehaztu dela. Hala, adibidez, foru aldundiek baremazioarekin lotutako alderdi hauek hartzen dituzte irizpidetat<sup>44</sup>: sexuen arabera bereizitako informazioa; emakumeen posizioa eta emakumeek beren eskubide ekonomiko, sozial, kultural, zibil, politiko, sexual eta erreproduktiboak dagokienez irabazitako boterea; iparraldeko eta hegoaldeko mugimendu feministen arteko koordinazioa; eta beste plan gidatzaile batzuekiko transbertsalizazioa. Are gehiago: zenbait foru aldundik Giza Eskubideen arloan jorratu zuten emakumeen aurkako tratu txarren auzia.

Aukera horiek guztiak zehazteko, transbertsalitatea eta ahalduntzea oinarri dituzten strategiak hartu behar dira ardatz, genero-ikuspegia instituzionalizatu behar da, eta emakumeen aldeko proiektu espezifikoak babesteko konpromiso sektorialak hartu behar dira. Dena dela, proposamen horiek gauzatzeko garatutako baliabide gehienak 2008an hasi ziren garatzen; hau da, krisi ekonomikoa gogor jotzen hasi zen garaian. Horren ondorioz, berdintasunaren aldeko konpromisoak egon bai, baina abian jarritako politiken eta proposamenen jarraipenik egiteko modurik ez dago, ez eta aurrekontu-garapenik ere, eta gizon-emakumeen arteko berdintasun errealean aurrera egiteko hobekuntza-elementurik ere ez.

Gizarte-erakundeek ere aurrera egin dute zenbait alorretan: pertsonen prestakuntzan, eragiteko ahalmenean eta antolakuntza-mailako aldaketetan, esaterako. Hori dela eta, Euskadiko GGKE-en Koordinakundearen garrantzia azpimarratu behar da (koordinakundeko generoari buruzko taldearena, batik bat), jarduera ugari martxan jarri eta ekitatea sustatzeko baliabide asko sortu baititu. GGKE-etan

---

<sup>43</sup> Instituzio nagusien jarrera sakonago aztertzeke, jo liburu honetara: Unceta K., Amiano, I. Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012): *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA. 52.-64. or.

<sup>44</sup> Unceta, K. et al. (2012): *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: la Política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA. 61. or.

diagnostikoak egiteko eta pertsonen prestakuntza bermatzeko proiektu bat koordinatu zuen, eta horrek sekulako garrantzia izan zuen gizarte-erakundeetan genero-ikuspegia lantzeko.

Edonola ere, genero-ikuspegia aintzat hartzeak zailtasun handiak dakartza. Hemen seinalaten ditugun zailtasunak beste deklarazio eta konpromiso batzuei buruz ari ginela aipatutako berberak dira. Terminoaren despolitizazioa eta horrek dakartzan ondorioak; kausei eta estrategiei buruzko azterketarik eza; genero-estrategia gaizki ulertzea eta, beraz, behar bezala ez gauzatzea; ikuspegi hori abiarazteko prozesu eta proiektuak gehiegi burokratizatzea eta teknifikatzea: horiek dira, nagusiki, genero-ikuspegia gauzatzeko zailtasunak. Sarritan, egiten dena sektorializazioaren aldeko apustua izaten da (errazagoa baita), eta ez transbertsalizazioaren aldekoa (ikuspegi horrek konpromiso handiagoa eskatzen baitu, bai eta diagnostikoak egin, eta jarraipen – eta ebaluazio-estrategiei heldu beharra ere). Gainera, ondo dakigu erakunde bereko eragileen arteko koordinazio edo aliantzarik ere ia batere ez dagoela, nahiz eta sarri askotan estrategikoa izan genero-ikuspegi integral bat martxan jartzeko. Politika horien azterketarik, jarraipenik eta ebaluaziorik eza ere aipatu behar da, bai eta borondate politiko eskasa ere.

Horrez gain, erakunde batzuk genero-ikuspegia martxan jartzearen alde lanean zihardutenean, orduantxe hasi ginen krisiaren eraginak pairatzen, eta, hala, baliabide ekonomikorik eta giza baliabiderik gabe gelditu ginen, eta, beraz, erakundeek ere antolakuntza-ahalmena galdu zuten. Krisi-testuinguruetan, funtsezko zat hartzen ez diren alderdi eta elementuak murrizten dira lehenbizi; eta, tamalez, zenbait erakunde eta talderentzat berdintasuna ez zen uste bezain garrantzitsua, eta, hala, ikuspegi hori gauzatzeko eta erakundeetan txertatzeko beharrezkoak ziren esfortzuak murriztu ziren.

Hala eta guztiz ere, onartu beharra dago euskal lankidetzak eta lankidetzak deszentralizatuak aurrerapauso ugari eman dituztela azken urte hauetan. Oro har, lankidetzak deszentralizatuari dagokionez, gurean diskurtso eta prozesu parte-hartzaile ugari daude, eta, hartan, gizarte zibilak garrantzi handia du.

## **4.2. GENERO-IKUSPEGIA AINTZAT HARTZEAREN ALDEKO EUSKAL LANKIDETZAREN PRAKTIKA**

Ekitatea eta genero-berdintasuna aintzat hartu eta emakumeen eta nesken eskubiak sustatzeko, euskal lankidetzak gero eta lan gehiago egin izan du. Horretan,

Emakundek, Lankidetzarako Euskal Agentziak eta Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko generoaren aldeko taldeak gida-liburu, ekimen eta proposamen ugari sortu ditu<sup>45</sup>. Eskubideen eta ingurumenaren ikuspegiarekin bezala, genero-berdintasuna ere zehar-lerrotzat hartu dute politika – eta plangintza-dokumentu askok, bai eta ekimen espezifikoko ugari ere. Euskal instituzio publikoetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak ikuspegi horretan sakontzeko nahia adierazi du, eta sektore horretako espezializazioa abiarazi. Euskadiko zenbait GGKE-k ekitatearen eta genero-berdintasunaren alde ibilbide luzea egina dute munduko eskualde askotan (Erdialdeko Amerikan, batez ere), eta erakundeen arteko lan-sare zabala sortu dute. Hala ere, zehar-lerro hori txertatzeak zailtasun teoriko ugari ditu, hala nola sektorialitateari eta transbertsalitateari buruzko eztabaida, eta Euskadiko GGKE-en eta beren aliatuen zuzendaritza-egiturei buruzko gogoeta.

Pixkanaka-pixkanaka, dekretuetan eta diru-laguntzak eskuratzeko deialdietan genero-ikuspegia duten proiektuak diruz laguntzearen alde egin da. Horrez gain, ikuspegi hori gauzatzeko baliabide espezifikokoak ere sortu dira.

Baliabide horiek askoz errazago erabili dituzte lankidetzaz eta berdintasuna batera landu izan dituzten erakundeek: Bizkaiko Foru Aldundiak, esate baterako. 2006an, emakumeen aldeko taldeentzako deialdietan diru-laguntzak eskatzeko aukera eman zitzaizen lankidetzan ziharduten erakundeei. Horri esker, zenbait erakundek baliabide espezifikokoak eskuratu ahal izan zituzten beren sentsibilizazio-, prestakuntza – eta ikerketa-proposamenak lantzeko.

Eusko Jaurlaritzari dagokionez, Garapenerako Lankidetzarako Plan Estrategiko eta Gidatzailea 2008-2011 izenekoaren baitan sortu zuen ekitatearen aldeko prozesuak babesteko baliabide espezifikoa<sup>46</sup>. GGKE-en garapen-ikuspegiari buruzko ikuspuntu holistikoa bati heltzea, horixe zuten helburu prozesuok. Baliabide horrek aukera ugari ematen zituen: GGKE-ei diagnostiko bat eta ekintza-plan bat ematekoa, besteak beste. Prozesu horretan, gainera, erakundeek finantzaketa nahikoa lukete, diagnostikoa eta ekintza-plana egiteko aholkularitza homologatu baten laguntza izateko.

---

<sup>45</sup> Lankidetzarako Euskal Agentziak generoari buruzko sail bat dauka, bai eta ekitatearen aldeko baliabide espezifikoko bat ere. 1998an, “ikuspuntua” hori lankidetzaren esparruan txertatzeko gida bat argitaratu zuen Emakundek. Horri buruz, ikus De la Cruz, C. (1998): *Guía metodológica para incorporar la perspectiva de género en los proyectos y programas de desarrollo*. Gasteiz: Emakunde.

<sup>46</sup> 2008ko azaroaren 25eko 197/2008 Dekretua.



Beste alde batetik, 2009-2011 urteetako Garapenerako Lankidetzarako Plan Gidatzaile horren baitan, hiru foru aldundiak bi baliabide espezifiko lortzeko urtean urteko deialdi bat jarri zuten martxan. Hona hemen bi baliabideok:

- Proiektuak abiarazteko plangintzetan genero-ikuspegia txertatzeko laguntzak. Diru-laguntzak ematea zen helburua, eskatzaileek generoan espezializatutako aholkularitza-zerbitzua kontratatuzko, foru aldundietako deialdietan aurkeztekoak ziren proiektuak planifikatzen eta formulatzen lagundu ziezaieten.
- Tokiko entitateetan genero-ikuspegia instituzionalizatzeko laguntzak. Generoan espezializatutako laguntza tekniko kontratatuzko diru-laguntzak ematea zen helburua, tokian tokiko GGKE-etan Genero Ekitatearen aldeko Antolakuntza Aldaketa martxan jarri eta garatzeko.

Aurrekontuetako diru-laguntzen %6 eman zen deialdi horietan. Are gehiago: deialdi askotan, gero eman dena baino diru gehiago zegoen hasieran.

Ondoren ikusiko dugu diru-laguntza horiek zer ondorio eta bilakaera izan duten. Arabako Foru Aldundiak (AFA) 2010ean ekin zion proiektuari; 2011. urtean, baina, eten egin zituen diru-laguntzak (nahiz eta berrikiago berriz heldu dion diru-laguntzak emateari). Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) etengabe egin ditu deialdiak, grafikoan ikus daitekeenez. Ikerketa-lan hau prestatzen eman dugun denbora-tartean, Bizkaiko Foru Aldundiak 143.000 € eman ditu laguntzetan; Arabakoak, berriz, 3.000 € inguru.


1 Taula. Generoaren ikuspegia lankidetzaproiektuetan aintzat hartzeko diru-laguntzak				
Emaila	2008	2009	2010	Guztira
AFA			3.405,75	3.405,75
BFA	37.431,00	61.459,95	4.4872,20	143.763,15
Guztira	37.431,00	61.459,95	48.277,95	147.168,90

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Diru-laguntzak herrialdeen arabera nola banatu diren aztertzen hasita, erraz ikus daiteke, adibidez, Peru dela diru-laguntza gehien jaso dituen herrialdea, proiektu gehienak herrialde horretan egiten direlako.

Genero-ikuspegia hezkuntza-proiektuetan aintzat hartzearen alde edo generoa instituzionalizatzearen alde erabilitako baliabideei dagokienez, hauek dira datuak: Eusko Jaurlaritzak, instituzioetan genero-ekitatea txertatzearen aldeko proposamen bat egina baitu, 10 proposameni 240.000 € eman dizkie guztira; Arabako Foru Aldundiak, berriz, bi hezkuntza-proiekturi 4.000 € inguru eman dizkie, generoari buruzko laguntza-zerbitzu teknikoa kontratatzeko.

**1. Grafikoa. Generoaren ikuspegia lankidetza-proiektuetan aintzat hartzeko diru-laguntzak**



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

**2. Taula. Generoaren ikuspegia garapenerako hezkuntzan aintzat hartzeko diru-laguntzak**

Emalea	2010	2011	Guztira
AFA	1.809,85	2.191,18	4.001,03
EJ	214.173,88	26.400,00	240.573,88
Guztira	215.983,73	28.591,18	244.574,91

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

### 3. Taula. GGKE-ak eta garapenerako laguntzaren arloan jasotako diru-laguntzak

Emaila	Urtea	GKE	Proiektu-mota	Diru-laguntza
AFA	2010	Mugarik Gabe	Hezkuntza	1.809,85
AFA	2011	ADSIS	Hezkuntza	2.191,18
EJ	2010	SETEM Hego Haizea	Instituzionala	26.400,00
EJ	2010	Mugen Gainetik	Instituzionala	26.129,44
EJ	2010	Mugarik Gabe	Instituzionala	2.6314,00
EJ	2010	Medicus Mundi Bizkaia	Instituzionala	26.400,00
EJ	2010	Munduko Medikuak Euskadi	Instituzionala	26.400,00
EJ	2010	Huancavelicaren Lagunak	Instituzionala	26.400,00
EJ	2010	Garabide Elkartea	Instituzionala	16.632,00
EJ	2010	FELIX BALTISTAN FUNDAZIOA	Instituzionala	26.129,44
EJ	2010	Alboan	Instituzionala	13.369,00
EJ	2011	ANESVAD	Instituzionala	26.400,00


Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

Proposamen horiek guztiek, baina, ahuldade ugari dauzkate: aurrekontu mugatua, batetik; kontu emateko (jarraipena eta ebaluazioa egiteko) baliabiderik eza, bestetik; eta gaitasun eta baliabide espezifikoak dituzten langilerik eza, azkenik. Dena dela, nabarmentzekoa da Lankidetzarako Euskal Agentziak generoan espezializatutako langileak hartu dituela azkenaldian; horrek garbi erakusten du euskal lankidetzaren esparruan genero-ekitatearen aldeko apustu instituzionala egin dela.

Beste alde batetik, Euskadiko zortzi instituzio nagusiek (Euskal Fondoak, Euskadiko hiriburu-udalek, foru aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak) abiarazitako proiektuak aztertzen ere saiatu gara. Proiektuak sailkatzeko, izenburuari erreparatu diogu, horixe baita erakundeei buruz daukagun datu bakarra, eta Emakumeak Garapenean estrategiarekin lotutakoak hartu ditugu aintzat, horietan emakumeak modu espezifikoan aipatzen baitira, bai eta Generoa Garapenean estrategiarekin lotutakoak ere, emakumeen eskubideak, ahalduntzea eta halakoak aipatzen baitituzte.

Grafikoan garbi ikusten da emakumeen edo genero-berdintasunaren aldeko proiektuek gora egin dutela progresiboki. 2004an, emakumeak ardatz zituzten proiektuak %17 izan ziren; 2011n, aldiz, emakumeak ardatz zituztenak %33 izan ziren, eta generoa ardatz zituztenak, %38.

**2. Grafikoa. Izenburuan emakumeen kolektiboa aipatzen duten proiektuen bilakaera**



Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

**4. Taula. Emakumea eta generoa oinarri dituzten proiektuen ehunekoak**

Urtea	Guztira	(%) Emakumea	(%) Generoa
2004	297	17,17	14,14
2005	280	13,21	15,00
2006	274	19,71	20,44
2007	333	21,62	18,92
2008	371	24,26	26,42
2009	352	25,28	30,68
2010	329	32,83	34,35
2011	269	32,71	36,80
Guztira	2.505	23,51	24,79

Iturria: Geuk egina, ALBOANek bildutako datu ofizialak oinarri hartuta.

## 5. Egindakoari buruzko balorazioak eta gaur egungo eztabaidak

Proiektuak direla eta, garbi gelditu da gizarte zibileko erakundeak garapenerako eragile eraginkor askoak direla, genero-berdintasuna gauzatzen duen garapeneredua sustatzen dutelako, emakumeen behar eta bizipenen berri ematen digutelako, eta emakumeen eskubide indibidual eta kolektiboak betetzeko lan egiten dutelako, garapen-prozesuan eragile ahaldundu gisa parte hartzea helburu hartuta.

Nahiz eta aski frogatuta dagoen garapen-eredu berri orotan emakumeen eta ikuspegi feministen presentzia guztiz beharrezkoa dela, oraindik egoera horretatik oso urruti gaude. Bai nazioartean, bai gurean, konpromisoei eta diskurtsoei dagokienez, aurrerapauso handiak egin dira, zalantzarik gabe, baina oraindik ikus-teko dago konpromiso horiei benetan heltzen zaien

Orain arte erabilitako estrategiak (bermatze-lanak, laguntza teknikoa) baloratze-ko garaia ere bada, beharrezkoa baita gaurdaino egindako aldaketak eta urratsak ondo aztertzea. Politika horien ebaluazioak, haien eraginari buruzko datuak eman eta bidean aurrera egin ahala aldatutakoen berri emateaz gain, estrategia eta ekintza jakinei buruzko ikaskuntza ugari ematen ditu.

Testuinguru horretan, nazioarteko errealitateak garbi erakusten digu “krisiari eta ekonomia-ereduari buruzko eztabaida ofizialetan genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak bazterreko auziak direla”<sup>47</sup>. Sara Longwe-k argi dio “diskurtsoen mailan dagoen adostasunak arazoaren esentzia” ezkututzen duela: “gurea

---

<sup>47</sup> Craviotto, N. eta Antolín, L. (koord.) (2009): “La movilización por la igualdad de género y la eficacia de la ayuda. Acciones, estrategias, éxitos y desafíos”, *Documento de trabajo*, 36. Madril: Fundación Carolina. 18. or.

agenda patriarkal bat da, ondo aztertu eta ulertu beharrekoa, aurrera egiten asmatuko badugu”.

Erronka konplexuak dira, inondik ere, azkenaldian integrazionismoa izan baita nagusi, gorago genioenez: egiturak aldatzeari uko egin, eta estrategia guztiak edukiz hustu nahi izan dira. Ezinbestekoa da, hortaz, eragozpenei aurre egiteko borondate politikoz jokatzeari, eta eskubideetan oinarritutako ikuspegi bati heltzea.

Argitalpen honetan azaldutako ibilbide luzeak garbi erakusten digu zeinen beharrezkoa den gizartean aliantza berriak jostea eta aldaketa estrukturalak egin daitezen saiatzea. Hala ere, krisia nagusi den honetan, ekintza jakinetan galtzeko joera, horixe izan liteke arriskutsuena.

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, beharrezkoa da ikuspegi dual baten alde egitea, transbertsalitatea eta ekintza konkretuak uztartuz. Horretarako, estrategia eraldatzaileak behar-beharrezkoak zaizkigu. Gero, estrategia horiek ebaluatu egin behar dira, kontu eman eta esperientzietatik ikasteko. Bestalde, politiken arteko koherentzia ere oso garrantzitsua da, lankidetzaren eragina ahalik handiena izan dadin. Horretan, Alemany-k aipatutako zenbait gomendio hartzen ditugu aintzat: emaleek eta gobernuek genero-berdintasunari buruzko beren konpromisoak bete behar dituzte; beharrezkoa da jabekuntza demokratikoa bermatzea, eta emakumeek laguntzaren eraginkortasunari buruzko agendan parte hartu behar dute; genero-berdintasuna Parisko Deklarazioaren jarraipen-lanetan sartu behar da; eta, azkenik, zenbait gidalerro eta baliabide sortu behar dira, genero-berdintasunaren inguruan nazioek zer betebeharrak dituzten jakiteko.

Zentzu horretan, gizarte zibiletik ere berdintasunari eta lankidetzari buruzko gomendio ugari iritsi dira. CONGDEk egindakoen artean, nazioarteko lankidetzari eta tokian tokikoari buruzko zenbait proposamen aipatuko ditugu:

- Emaleek eta gobernuek genero-berdintasunari buruzko beren konpromisoak bete behar dituzte.
- Laguntzen inguruko nazioarteko sareek aintzat hartu behar lukete genero-ikuspegia, Akkrako Ekintza Agendan bertan gomendatzen denez.
- Konpromisoak nahitaez betetzeko mekanismoak sortu behar lirateke, eta horretarako baliabide egokiak eman, denen parte-hartzea berma dadin, to-

kian tokiko jabekuntza demokratikoa gauzatu eta elkarri egindakoen kontu emanez.

- Europar Batasuneko Generoa Garapenean Ekintza Plana indartu egin behar da, eta, horretarako, beharrezkoa da, hartaz gain, garapen – eta atzerri-kontuetarako plan bat egitea, batetik, eta Europako Kanpo Zerbitzuan generoaren transbertsalizazioa aintzat hartzea, bestetik, Nazio Batuen transbertsalizazio-ekimenek (2008/34 Ebazpena) egin bezala.
- Beharrezkoa da instituzioek emakumeen giza eskubideak bermatzea, eta eskubideok benetako zilegitasun politikoa izatea, aurrekontuetan horretarako dirua ematea, emakumeek, hezkuntzan eta osasun-sektorean ez ezik, beste zenbait alorretan ere zeresana izatea, hala nola ekonomian, segurtasunean, zerga-kontuetan eta justizian. Beharrezkoa da, orobat, Garapen Planekin lotutako agenda instituzionalei buruz eztabaidatzen den guneetan emakumeek politikoki parte hartzea, eredu sozio-ekonomiko eta politiko publikoak antolatzen jardun daitezen.
- Espainiar estatuko GGKE-ek ere bete behar dituzte hemen aurkeztutako eskaerak, bai eta lankidetzaren deszentralizatuan ari diren gainerako erakundeek ere. Sektore bakoitzean lanean ari direnek genero-kontuetan sentsibilitaterik ez badute, eta zuzendaritza-lanetan dihardutenen borondate politikorik gabe, Plan Gidatzailean eta AECIDen Genero eta Garapen Estrategian aipatutako lehentasunak hutsean gelditzen dira. Zentzu berean, beharrezkoa da lankidetzaren zentralizatu nahiz deszentralizatuan ari diren guztien artean ekitatearen aldeko ekimenak sustatzea, Espainiako estatuko lankidetzaren genero-ikuspegiaren egiazko transbertsalizazioa lortzeko.

Genero-berdintasuna eta emakumeen eskubideak eztabaida ofizialetara eramatea, horixe da, azken batean, gure erronka nagusietako bat. Eztabaida horietan, politika-mota horien alde dauden instituzio, gizarte-eragile eta mugimendu guztiek hartu behar dute parte. Ezinbestekoa da, halaber, behar beste baliabide, tresna eta adierazle edukitzea, lortutakoen jarraipena egin eta haien berri emateko.

Alde horretatik, euskal instituzio publikoei dagokienez, ezinbestekoa da azken urteotan abiarazitako prozesuekin jarraitzea, bai eta beste erakunde eta talde batzuk haietan parte har dezaten bultzatzea ere.

Beste alde batetik, gurean bertan eta nazioartean, beharrezkoa da ahalik eta adierazle eta datu gehien edukitzea eskura, konpromisoak-eta betetzen diren ikusteko, batetik, eta egindakoek politikak eta baliabideak eraldatzeko ahalmenik ba ote duten jakiteko. Gainera, sormenez jokatzea ere beharrezkoa da, prozesuotan beste erakunde batzuek parte hartu dezaten, denen artean justizia oinarri duen garapen-eredu baten alde lan egiteko.



## 6. Bibliografía

Alemany, C, Craviotto, N. Hopenhaym, F. (2008): *Implementando la Declaración de París: Implicaciones para la promoción de los derechos de las mujeres y la equidad de género*. Council for International Cooperation (CCIC).

Askoren Artean (2008): *Análisis de género en la ayuda oficial al desarrollo. Promoción de la participación política y el liderazgo de las mujeres. Valoración y corresponsabilidad en la economía del cuidado*. Madril: Campaña Muévete por la Igualdad. Es de justicia.

Askoren Artean (2010): *Contexto de la política actual de igualdad de género y desarrollo: ¿qué lugar ocupará la cooperación española y la sociedad civil?* Madril. Campaña Muévete por la Igualdad. Es de justicia. Better Aid (2011a): “Demandas de las Organizaciones de Mujeres y Defensoras de la Equidad de Género”. Esteka: [http://cso-effectiveness.org/IMG/pdf/demandas\\_clave\\_de\\_las\\_mujeres\\_hacia\\_busan.pdf](http://cso-effectiveness.org/IMG/pdf/demandas_clave_de_las_mujeres_hacia_busan.pdf) (2013/12/21)

Better Aid (2011b): “Declaración de BetterAid sobre la Alianza Mundial para una cooperación al desarrollo eficaz”. Esteka: [http://cso-effectiveness.org/IMG/pdf/betteraid\\_statement\\_on\\_bod-final\\_es.pdf](http://cso-effectiveness.org/IMG/pdf/betteraid_statement_on_bod-final_es.pdf) (2013/12/21)

Better Aid. (2011c): “¿Qué es la Declaración de París sobre la eficacia de la ayuda al desarrollo?”. Esteka: <http://cso-effectiveness.org/IMG/pdf/declaracionparis.pdf> (2014/01/03)

Craviotto, N. eta Antolín, L. (koord.) (2009): “La movilización por la igualdad de género y la eficacia de la ayuda. Acciones, estrategias, éxitos y desafíos”, in

*Documento de trabajo, 36*, Madril: Fundación Carolina. Esteka: <http://www.fundacioncarolina.es/es-ES/publicaciones/documentostrabajo/Documents/DT36.pdf> (2013/12/21)

Cruz, C. (2007): *¿Quién se apropia del desarrollo? Contribuciones al debate sobre género y la nueva arquitectura de la ayuda*. Bilbo: Hegoa.

Cruz, C., Barrig, M. eta Rodríguez, A. (2008): “El financiamiento para la igualdad de género y la nueva “arquitectura de la ayuda”. Los casos de Guatemala y Perú”, in *Documento de trabajo, 26*, Madril: Fundación Carolina. Esteka: <http://www.fundacioncarolina.es/es-ES/publicaciones/documentostrabajo/Documents/DT26.pdf> (2013/12/21)

ELGA (2008): “Declaración de París sobre la eficacia de la ayuda al desarrollo y programa de acción de Accra”. Esteka: <http://www.oecd.org/dac/effectiveness/34580968.pdf> (2014/01/03)

ELGA (2008): “DAC guiding principles for aid effectiveness, gender equality and women’s empowerment”. Esteka: <http://www.oecd.org/social/gender-development/42310124.pdf>

Espainiako GGKE-en Koordinakundea (2013): *Documento de posicionamiento. La cooperación española y la plataforma de acción de Beijing ante los retos europeos*. Esteka: <http://gaurkoemakumeak.files.wordpress.com/posicionamiento-congd.doc> (2013/12/21)

Espinosa Fajardo, J. (2013): “La igualdad entre mujeres y hombres, por Mariano Rajoy”. Esteka: <http://www.2015ymas.org/comunicacion/destacamos/opinamos/2013/379/la-igualdad-entre-mujeres-y-hombres-por-mariano-rajoy/#.UswuHbSmakE> (2013/01/07)

García-Mina Freire, A. (2010) “La categoría “género”: historia de una necesidad”, in *Sal Terrae*, 98, 307.-321. or.

LANE: “La década de las Naciones Unidas y la CEDAW”. Esteka: [http://www.ilo.org/public//spanish/region/ampro/cinterfor/temas/gender/oit\\_igu/inst\\_int/inst\\_int2.htm](http://www.ilo.org/public//spanish/region/ampro/cinterfor/temas/gender/oit_igu/inst_int/inst_int2.htm) (2014/01/02)

LANE: “Definición de la transversalización de género”. Esteka: <http://www.ilo.org/public/spanish/bureau/gender/newsite2002/about/defin.htm> (2014/01/07)

- Nazio Batuen Erakundea: “Declaración y Plataforma de Acción Beijing”. Esteka: <http://www.un.org/womenwatch/daw/beijing/pdf/BDPfA%2oS.pdf> (2013/12/13)
- Nazio Batuen Erakundea (2000): “Resolución 1325”. Esteka: [http://www.ipu.org/splz-e/cuenca10/UN\\_1325.pdf](http://www.ipu.org/splz-e/cuenca10/UN_1325.pdf) (2013/01/07)
- NBGP (2006): *Guía transversalización de género en proyectos de desarrollo*. Mexiko: NBGP. Esteka: [http://www.undp.org.mx/IMG/pdf/Guia\\_de\\_Transv-de\\_Gen-en\\_Proj-.pdf](http://www.undp.org.mx/IMG/pdf/Guia_de_Transv-de_Gen-en_Proj-.pdf)
- Pérez de Armiño, C. (2000): *Diccionario de Acción Humanitaria y Cooperación al Desarrollo*. Bartzelona: Icaria eta Hegoa.
- Schoenstein, A. eta Craviotto, N. (2013): “Una Mirada Feminista Al Cuarto Foro De Alto Nivel Sobre La Eficacia De La Ayuda”. Esteka: <http://www.awid.org/es/Las-Noticias-y-Analisis/Notas-de-los-Viernes/Una-mirada-feminista-al-Cuarto-Foro-de-Alto-Nivel-sobre-la-Eficacia-de-la-Ayuda> (2013/12/21)
- Unceta K., Amiano, I. Gutiérrez, J., Kabaiuen, I., Martínez, M.J., Malagón, E., Sabalza, M., Villena U., Zabalza, I. (2012): *25 Años de Cooperación al Desarrollo en Euskadi: La política de Instituciones Públicas y el Sistema Vasco de Cooperación*. Bilbo: HEGOA.
- Viadero, M. (2011): “Presentación”, in *Esto del género en la Cooperación Descentralizada Vasca*. Bilbao: Coordinadora de ONGD.
- Zabala Errasti, I. eta Martínez Herrero, M.J: “Una visión de género de la agenda del desarrollo y de la eficacia de la ayuda”. Esteka: <http://xivrem.ujaen.es/wp-content/uploads/2011/11/52-R-030M514.pdf> (2013/12/21)